

www.unescoetxea.org

2014

**TXOSTENA
UNESCO ETXEA**

RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA



Euskal Herriko UNESCO Sarearen 1. topaketa. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo. 2014ko abenduak 18

2014 inflexio-urtea izan da UNESCO Etxean. Izan ditugun barneko eta kanpoko inflexioek ez dute aldatzen gure funtsa, baina moldekatzen laguntzen digute, gure gizartearekin batera eboluzionatzen.

Lehenik eta behin, gure Mikel Mancisidor maiteak UNESCO Etxearen zuzendaritza utzi du. Hamar urteko jardunaren eta konpromisoaren ondoren, Mikelek Giza Eskubideetako nazioarteko aditu gisa jarraituko du bere lanbide-ibilbidean. UNESCO Etxeari egin dizkion ekarpen ugarietatik, Mikelek, dudarik gabe, Giza Eskubideen esparru horretan beste ezertan baino gehiago lagundu digu hazten erakunde gisa. Giza eskubideak gure lanaren ardatz nagusietako bat bilakatu dira eta erreferentziako erakunde bihurtu gaituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, estatuan eta nazioartean. UNESCO Etxetik eskerrak eman nahi dizkiogu Mikeli urte hauetan guztietan buru-belarri aritzeagatik eta erakutsi dituen profesionaltasunagatik eta dedikazioagatik, guri erakunde gisa sendotzeko aukera emanaz.

2014ean ilusioz hartu genuen Arantza Acha, UNESCO Etxeko zuzendarien artean lehen emakumezkoa. Horrek esanahi berezia du, izan ere, Aranek UNESCO Etxeko bekadun gisa hasi zuen bere lanbide-ibilbidea, hain zuzen ere, UNESCOren Indonesiako bulegoan. Nazioarteko testuinguruan gero eta erantzukizun handiagoko postuetan lan egin ondoren, UNESCO Etxean lanean hasi izanak erakusten digu zein garrantzitsuak diren gure gazteak hezteko eta Nazio Batuen sistemako esparru paregabeetan profesionalki garatzeko aukera emateko egiten ditugun ahaleginak. Aran ingurumen-iraunkortasunaren mundutik dator, elkarre gisa izan dugun ibilbidearen hasieratik gakoa izan den eta orain inoiz baino garrantzitsuagoa den esparrutik.

Garapen iraunkor eta inklusiborako erakundeen arteko lankidetzak duen garrantziaren jakitun izanda, UNESCO Etxetik Red UNESCO DEL PAIS VASCO/ EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREA sustatu dugu. Aurten eman ditugu lehen urratsak UNESCOrekin lotura dugun euskal erakundeok koordinatzen eta elkarrekin lan egiten hasteko, elkar indartuz eta UNESCOren balioek eta printzipioek gure gizartean presentzia handiagoa izan dezaten lagunduz.

Azkenik, gure eboluzioak nazioarteko isurialdea ere badu. Dakizuen bezala, nazioarteko komunitatea eta UNESCO Etxea hausnarketa-prozesu sakona eta parte-hartzailea ari dira egiten pertsonen garapen duinerako lehentasun globalak zeintzuk izan behar duten zehazteko. Prozesu hori 2015eko irailean bukatuko da Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH, 2015-2030) onartzen direnean, hau da, Milurteko Garapen Helburuei (MGH, 2000-2015) jarraipena emango dien agenda onartzen denean. Agenda berria 2015ean sinatuko den arren, 2014 gakoa izan da agenda berriaren gako-kontzeptuak zehazteko, GIHekin alderatuta desberdintasun handiak baititu. Agenda berriaren xedea unibertsala, integratzailea eta eraldatzailea izatea da, munduko gizarte guztientzako helburuak eta xedeak jarriz pobrezia desagerrarazteko, bizitzak eraldatzeko eta planeta babesteko.

Nazioarteko komunitatea eskatzen ari da guztiok izan behar dugula giza garapen iraunkor baten eragileak. Hegoaldeko eta iparraldeko herriok bide-orri bateratua ezarri behar dugula, erantzukizun partekatua baina berezietekin, gizarte zuzenago eta bidezkoago baterantz joateko, geure garapenerako funtsezkoa den ingurune naturalari egiten ari garen kalte izugarria alderantzikatuz. UNESCO Etxean uste dugu euskal gizartea prest dagoela erronka horri aurre egiteko eta GIHren alde lan egingo duen tokiko eta nazioarteko eragilea izateko. Gure identitatea, gure kudeaketa eta giza garapen ereduak, gure ezagutzak eta gure konpromisoa abiapuntu bikaina dira ikasteko, beste herri batzuekin gauzak partekatze eta gizarte bidezkoa eta iraunkorra elkarrekin eraikitze. Denok gonbidatzen zaituztegu prozesu horren partaide izatera eta desafio konplexu eta eraldatzaile hori gurekin guztiok partekatuzera.

Erredakzio: UNESCO Etxeko lan-taldea ; **Edizioa:** 2015eko ekainak

Bilbao: Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. Tfna: 94 427 64 32

Gasteiz: Zapatarri kalea 8. Tfna.: 945 26 41 96

info@unescoetxea.org – www.unescoetxea.org




NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 129 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXeko ORGANIGRAMA



Gainera:
 - 15 Boluntario egoitzan.
 - Eusko Jaurfartzarekin 12 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan
 - BBK Fundazioarekin 1 bekadun en UNESCOren Pariseko egoitzan.



UNESCO Etxeko lan- taldea. 2014ko azaroaren 4a

EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioko agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBErekin;
- Bere inntzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, partiarria eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara:

- Zintzotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharrei dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haien hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondoan jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektio publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

SARE ETA ALIANTZAK

UNESCOREKIN eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOREKIKO Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- UNESCOREN kultura-ondare ez-materiala babesteko batzordearen GKE aholkularia.
- Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- UNESCOREN eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.
- UNESCOREKIN Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOREKIN Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Milurteko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Konfederazioa (CECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GKE-en Konferentzia (CONGO).
- UNESCOREN kultura-ondare ez-materiala babesteko konbentzioaren aurrean akreditaturik diren GKE-en Sarea.
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- ONGAWA.

- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea (*Pobreziaaren kontrako taldea*).
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarten Federazioa.
- Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokia.
- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa
- Euskal Herriko UNESCO Sarea.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHuko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHuko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHuko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Latinoamerikako Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea (*Eragin polikoa taldea*).
- Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarten Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- Euskaltzaindia.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Garapen Bidean.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- San Nicolás Arraun Taldea. Portugalete.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.
- Soziolinguistika Klusterra.
- Enkarterialde.
- Unescocat – Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax Institutua.
- UNESCOREN lagunak Korporazioa, Kolonbia.
- Plataforma 2015 y +.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria . Hiri Sortzaileen Sarea.
- Gasze Enplegurako Hamarkadaren kanpaina. Pegasus Proiektua.

UNESCO BEKAK

1997 – 2014

164 PERTSONA


43 HERRIALDE

Kontinenteen arabera

AMERIKA	82
ASIA	45
AFRIKA	31
OZEANIA	6
GUZTIRA	164

Sexuaren arabera

EMAKUMEAK	128
GIZONAK	36
GUZTIRA	164



PROGRAMAK

Pertsona guztientzako giza garapen iraunkorra eta bake bidezkoa lortuko bada, ezinbestekoa da giza eskubideak errespetatzea. Horiexek dira, hain zuzen, UNESCO Etxearen helburuak eguneroko jardunean. Hori dela eta, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzen dugu aintzat antolatzen eta bultzatzen ditugun programa eta ekimen guztietan. Genero berdintasunaren alde dihardugu UNESCO Etxetik euskal gizarteko eta nazioarteko instituzio esparru guztietan.

UNESCO Etxeak 2014. urtean egin dituen jarduera guztien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

GARAPENERAKO KULTURA



'Aniztasunera Leioa', Lankidetzazko-arte proiektuko Tailerrak.
Bilbao, 2014ko otsaila – martxo

2015aren ondoko agendaren definizioaren esparruan, segida eman dio UNESCO Etxeak 2014. urte osoan zehar kultura giza garapenean marnitzeko lanari. Xede horri begira, nazioarteko kanpainetan hartu dugu parte –horra 'My World', UNESCOk, UNFPA, Nazio Batuen Populazio Ekitaldietarako Funtzak eta NBGP, Nazio Batuen Garapenerako Programak bultzaturiko kanpaina–, eta heziketa eta sentsibilizazio ekintzak bururatu ditugu, 'Arraza bat, herri asko' argazki erakusketa eta 'Garapenerako agenda berria: giza eskubideak eta kultura 2015aren ondoan' mintegia, besteak beste. Beste urte batzuetan bezala, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna eta Aniztasunaren Eguna ere ospatu ditugu.

Euskal Herriko Kultura Ondarearen inguruko lanari ere eman diogu segida, lurraldean Ondarea sustatuz eta, kreditaturiko GKE gisa, UNESCOren Kultura Ondare Ez-materialaren Biltzarrean parte hartuz.

Gutxituriko hizkuntzen sustapenerako lan egin dugu EHU/UPVko Munduko Hizkuntza Ondarerako UNESCO Katedrarekin batean; Kultura Eskubideetarako Errelatore Bereziarekin lanean jardun dugu eta, kultura aniztasuna ekintzen bitartez bultzatu bitartean, bereziki zabaldu dugu haren lana gure gizartean. Ekintza horien artean, aipagarri dugu Nazio Batuen Zibilizazioen Aliantzak 'Egizu zerbait Aniztasunaren eta gizarteratzearen alde' izenaz sustaturiko kanpaina ezagutarazteko lana.

Bereziki aipagarria da, zentzu honetan, UNESCO Etxeak UNESCOk, 'Aniztasunera leioa' izenaz eta gazteen arte kulturantz eta parte harrarazlearen alde, bultzatu duen nazioarteko proiektuan bururaturiko parte hartzea. Halatan, ikus-entzunezkoen sorkuntza kolektiborako lantegi sail batean hartu dute parte Bilbo eta Donostiako gazteek, ez ordea beren esperientzia sarean munduko beste toki askotako gazteekin partekatuta gabe. Proiektuaren Europako eragile nagusia delarik, proiektu hau sustatzen eta bultzatzen segituko du betiere UNESCO Etxeak Euskal Herriko beste herri eta hirietako gazteen artean.

Bultzatu ez ezik, ospatu ere egin dugu Bilbo diseinuaren UNESCO Hiria izendatu izana. UNESCO Hiri Sortzaileen sareko kidea dugu dagoeneko Bilbo.

BAKE KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK



Europako Kontseiluaren Monumentuen Nazioarteko Argazki Esperientzia
'Sabaia'. Paulo Albuaren argazkia, Urretxu – Zumarraga Ikastolako ikaslea

Gure nortasunaren funtsezko ezaugarria da betiere gure herrian Bakearen Kultura eta Giza Eskubideak bultzatzea:

Giza Eskubideen inguruko gogoeta eta hausnarketa guneak antolatu ditugu, hala nola 'Memoriaren erakuntza Latinoamerikan: etxerako ikaskuntzak' mintegia eta 'Giza Eskubideen erakundeak Euskadin. Helmena eta erronkak'. Antolatu ere egin dugu, idazkaritza tekniko eta edukien koordinazio lanak geure gain harturik, Bizkaiko Foru Diputazioaren Giza Eskubideen VII. Forua, honako izenburu honen arabera: 'Informazio eta adierazpen askatasunerako eskubidea'. Nazio Batuen esparruko adituen eta euskal instituzio eta erakundeetako ordezkarien parte hartzea ziurtatu dugu topaketa hauetan guztietan.

Hitzaldi bat eskaini diegu Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako TECNUN Ingeniaritza Eskolako ikasleei honako izenburu honen pean: Hezkuntza giza eskubide gisa eta giza eskubideen heziketa. Helsinki España eta TECNUN erakundeek "Gazteak Gazteentzat" izenaz antolaturiko unibertsitate proiektuaren barruko ekitaldia izan da.

Horrez gainera, 'Krisitik ateratzeko, kalitatezko hezkuntzan inbertitu' izeneko eztabaida-mahaia antolatu dugu UNESCOren Hezkuntza Guztientzat programaren XI. Jarraipen Txostenaren aurkezpen ekitaldian.

'Human Rights Internship Programme' delako formazio lantegiaren hirugarren edizioa koordinatu dugu 2014ko irailaren 22 eta 26 bitartean, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak Genevan egin zuen 27. bilkurrean aldi berean. Euskal Herriko GKE eta erakundeen zortzi ordezkari hartu dute hartan parte. Prestakuntza teorikoa eskaintzeaz gainera, Nazio Batuen Sistemak giza eskubideen babesari begira dituen funtzionamendu-baliabideetarako hurbiltze praktikoa ere eskaini du lantegi hark, eta Giza Eskubideen Kontseiluko erakundeetan zuzenean jarraitzeko aukera eduki dute bertaraturiko ordezkariak.

Bakearen aldeko Hezkuntza bultzatzen segitzen dugu euskal ikastetxeetan eta haietako zortziren parte hartzea koordinatu dugu UNESCOren Loturiko Ikastetxeen Munduko Sarean. Bost ikastetxek hartu zuten Europako Kontseiluaren Monumentuen Nazioarteko Argazki Esperientzia delakoan parte. Bi ikasle saritu zituzten Euskal Kultura Ondarearen inguruan aurkezturiko argazkiengatik, eta gazteen nazioarteko topaketa batean hartu zuten parte Estraburgon.

IRAUNKORTASUNA



Garapen Iraunkorraren aldeko Hezkuntzari buruzko Munduko Konferentzia. Ekitaldi paraleloa 'The implementation of ESD in local governments. Good practices'. Aichi-Nagoya, Japonia. 2014ko azaroak 12

2014. urtean zehar, UNESCO Etxeak euskal gizartearekin batean segitu du lanean ingurumenaren iraunkortasuna etengabe giza garapenaren berezko eta sailhestezinezko osagaizat har dadin.

2014. urtean, **Garapen Iraunkorrerako Helburuak** zehazten ahalegindu da bereziki nazioarteko komunitatea eta prozesu horretan hartu du parte UNESCO Etxeak, Euskaditik bere irizkiak eta irizpideak eskainiz eta tokiko, estatuetak eta nazioarteko erakundeekin koordinatuz, pobrezia ezabatzea eta garapen iraunkorraren sustapena helburutzat dituen agenda asmo handiko eta eraldatzaile baten eraikuntzari begira.

2014. urtean **Urdaibaiko (BE) Biosfera Erreserbarekin** batean ari izan gara beste Biosfera Erreserbekiko nazioarteko aliantzen sendotze lanean eta horrenbestez zehaztu dira Dyfiko BE galestarrarekiko eta Galloway eta South Ayrshireko BE eskoziarrarekiko harremanak. 2014an, UNESCO Etxeak eta Urdaibaiko BE-k lantegi bat antolatu dute **gizarte ekintza** lurraldearekin gizarte konpromisoa harturiko enpresa eredu gisa sustatzeko, eredu horrek ingurumen, gizarte eta ekonomiaren iraunkortasuna bultzatzen duen aldetik.

UNESCO Etxeak eta Eusko Jaurlaritzak **Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Mundu Konferentzian** hartu dute parte Aichi-Nagoyan (Japonia), eta **euskal Eskola Agenda 21**aren esperientziaren berri eskaini diete hara bertaratu. Hain zuzen ere, munduko praktika onen artean 25 hobereenen arteko zat hartu du UNESCOk ekimen hori, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadaren barruan.

Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedraren lan berritzailea zabaldu eta bultzatu dugu hainbat bidetatik, eta proiektuari buruzko agerkari baten edizioan parte hartu dugu bereziki: **'Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian'**.

Ura Giza Eskubide gisa bultzatzen eta defendatzen segitzen dugu betiere, bertako eta nazioarteko gune eta erakundeetan. Horretarako, uraren eta saneamenduaren arloan nazioarte mailan dauden eta sumatzen diren joeren inguruko txosten bat prestatu dugu, eta sentsibilizazio ekintza eta jarduera batzuk antolatu ditugu. Horien artekoak ditugu, adibidez, **Uraren Asteko Zine-Forum Zikloa** eta **Uraren Jaia Gueñesen**.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

ORIENTAZIO-ZENTROA, KOMUNIKAZIOA ETA BEKAK



Joana Vitorica. Indonesiako UNESCO Jakarta bulegoan bekaduna. UNESCO Staff Day 2014, Borobudur tenploa.

© UNESCO 2015. "Annual Report 2014" / licensed under the Attribution-ShareAlike 3.0 IGO

UNESCO Etxearen **Orientazio, Komunikazio eta Beken Zentroak**, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuak, 1.600 lagun baino gehiagori eman die arreta. Kontsulta gehienek xedea izan da jakitea zer aukera dauden NBE eta UNESCOn lan egiteko eta praktika profesionalak gauzatzeko. Askok izan dira, halaber, informazio eta agiri espezializatuen bila etorritakoak, bai eta UNESCO Etxeak antolatutako jardueren buruzko argibide-eskaerak ere.

'Prestakuntza eta enpleguari buruzko buletinak' argitaratu dira (11, zehazki), eta honako hauek jaso dira buletin horietan: Nazio Batuen Sistemako eta nazioarteko erakundeetako 197 lan-eskaintza; NBE-UNESCOri loturiko hainbat gairen gaineko 28 prestakuntza-aukera; lanean txertatzeko programa eta beketarako 32 deialdi; 10 nazioarteko lehiaketa eta 14 informazio orokorreko edukia. Horrez gain, **laneko orientabide eta prestakuntza pertsonalizatuko zerbitzua** eskaintzen jarraitu dugu, eta Nazio Batuek pertsona bakoitzari eskaintzen dizkieten lanbide-ibilbide posibleen berri eman dugu, horren bitartez.

BBK-UNESCO Nazioartekotze Bekaren 1. edizioari esker, pertsona bat gehitu da Pariseko UNESCOren Egoitzaren Administrazio Zerbitzu Orokorretarako (Administrazio eta Finantza Atalean) 9 hilabetetan zehar.

Eusko Jaurlaritzaren NBE Beka-programari esker, bost lagunek beka berritu zuten, bigarren urtea egiteko UNESCOk Afrikan, Asian eta Latinoamerikan dituen bulegoetan.

Zerbitzu horrekin batera, Nazio Batuen arloan espezializatutako agiriaren zerbitzua ere mantendu dugu. 3.600 lan baino gehiagoko dokumentu-funtsa kudeatu dugu, eta hiru **Buletin dokumental** argitaratu ditugu.

Webguneak 297.520 sarrera izan ditu guztira; 102 albiste argitaratu dira eta gure jardueren buruzko informazioa emateko 38 mezu elektronikoko bidali dizkiegu 2.000 kontaktu baino gehiagori.

Sare sozialetan ere presentzia areagotu dugu; 1.667 jarraitzaile lortu ditugu **Facebooken**, eta 609 **Twitterren**. 26 bideo berri partekatu ditugu You Tubeko gure kanalean.

Hirugarren urtez, **Onda Vascako Euskadi Hoy** irratsaioan dugun geure espazioan kolaboratzen jarraitu dugu; gure jarduerak eta UNESCOn eta Nazio Batuetan gaurkotatzen diren hainbat gai hurbildu dizkiegu entzuleei, asteazkenero. 2014an 29 programatan hartu dugu parte.

2014ko ARGITALPENAK



Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentuen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- **Giza Garapenari buruzko Txostena 2014. Laburpena.** Giza aurrerapenak irunarazi: Kalteberatasunak murriztu eta erresilientzia eraikitzea.
- **Aniztasunak. Sormen-jolasa.**

Berezko argitalpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- **Ecos de la serpiente.** Reflexiones desde el País Vasco sobre instrumentos del Consejo de Derechos Humanos.



EKITALDI NABARMENAK

1 EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREAREN I. TOPAKETA

UNESCO Etxeak deiturik eta antolatuturik, **Euskal Herriko UNESCO Sarearen I. Topaketa** egin dugu Bilbon abenduaren 18an.

UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitateko bost UNESCO katedrek, UNESCOrekin Loturiko Eskolen Sareko zazpi euskal ikastetxeek, UNESCO Sarera bilduriko bi liburutegik, Munduko Ondarean inskribaturiko bi lekuk, Bilboko hiriak, Hiri Sortzaileen Sareko kidea den aldetik, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak, Euskal Kostaldeko Geoparkeak eta Euskal Herrian diharduten hiru zentro, klub nahiz elkartetek egituratzen dute egun sarea.

Topaketaren helburua zen **euskal gizarteak** Nazio Batuekin **dituen harremanak sendotzea** eta **Euskal Herriak UNESCOn** eta harekin elkarturiko beste erakundeetan **duen parte hartzea** agertzea eta koordinatzea.

Topaketa honetan, UNESCOren bost jarduera esparruetan (hezkuntza, natura zientziak eta giza zientziak, kultura eta informazioa, eta komunikazioa) dituzten **proiektuak, programak eta ekimenak** aurkeztu zituzten UNESCOrekin loturiko euskal eragileek.

Parte hartu zuten, halaber, Leire Madariaga, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Zuzendariak; Mikel Burkazo, Lehendakariako Koordinazio Zuzendariak, eta Alvaro de la Rica Aspiunza, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Ikasle eta Harremanetarako Errektoreordeak. Gonbidatu berezia izan zen Dolors Reig, FACU, Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO delako federazioko burua.

Sareko Koordinaziorako Batzorde bat eratzea erabaki zuten parte hartzaileek Topaketa honetan. Idazkaritza teknikoaren arloko lanak beteko ditu UNESCO Etxeak, batzordearen kudeatze eta koordinazio lanen ardura bere gain hartuz.

2 'EMAN MINUTU BAT GIZA ESKUBIDEEN ALDE' LEHIAKETA

V. edizioan, **Giza Eskubideak** izan ziren **'Eman minutu 1 ... alde'** bideo lehiaketako gai nagusia.

Kategoria nagusiko lehen saria irabazi zuen **'Vidas maltratadas'**, Micaela Montes eta Virna Villalba autore argentinarren lanak. Nestor Basterretxearen Hilari solidarioa eskultura jaso zuten saritzat.

'Ekin eta egin' kategorian, Ibon Markaida getxoztarra izan zen irabazlea, **'Orain bai, orain ez'** bideoaz. 'UNESCO Etxea' golardo irabazi zuen Nacho García, **'Juntos por los Derechos Humanos'** lanaren egile valentziarrak.

EITBren Bilboko egoitzako Multibox aretoan bururatu zen sarien banaketarako ekitaldia, 300 lagunengoa. EITBko Ana Aizpiri eta Ana Urrutia kazetariak izan ziren aurkezleak, "Ipso-facto-impro" inprobisazio antzerki konpainiarekin batera. Euskal gizarteko pertsona ezagunak bertaratu ziren, hala nola Jose Angel Iribar, Koldo Agirre eta Jose Mari Argoitia, Athletic Clubeko ordezkaririk, Fernando Canales eta Rubén Castillejo sukaldariak, eta Javier Conde atleta.

Ekitaldian, omenaldi laburra egin zitzaion Nestor Basterretxea eskultore eta **'Hilari Solidarioa'**, lehiaketako sariaren egile izan zenari, eta haren seme batek egin zuen "Eman minutu bat Giza Eskubideen alde" sariaren entrega.

Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritzaren finantzazioa jaso du lehiaketak.

Abenduaren 11n **Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren** oroitzapenezko ekitaldi bat egin zen Getxon, eta bertan aurkeztu ziren lehiaketaren V. edizioa eta **'El gusto es mío'**, Elikadurarako Giza Eskubideari bereziki eskainiriko dokumentala. 2013ko "Eman minutu bat ogiaren alde" sariaren irabazleak eta "Be motive" ekoizketa etxeak gauzatu dute Getxo eta Bilboko Udalek subentzaturiko dokumental hori.



DATU EKONOMIKOAK

GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak
www.unescoetxea.org web gunean daude.

2014ko Auditoriaren txostena

LKS

LKS AUDITORES, S.L.
C/Alfonso de Ercilla, 10, 2º planta
48901 Leizor (Bizkaia)
T: 945 22 14 00
www.lksauditores.com

INFORME DE AUDITORÍA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO

Informe sobre las cuentas anuales abreviadas

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas adjuntas de la Asociación UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO que comprenden el balance abreviado al 31 de diciembre de 2014, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad del Consejo de Gobierno en relación con las cuentas anuales abreviadas

El Consejo de Gobierno de la Asociación es responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada adjunta, y del control interno que considere necesario para permitir la preparación de cuentas anuales abreviadas libres de incorrecciones materiales, debidas a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales abreviadas adjuntas basadas en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas están libres de incorrecciones materiales.

Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los hechos y la información revelada en las cuentas anuales abreviadas. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales abreviadas, debidas a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales abreviadas, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales abreviadas tomadas en su conjunto.

UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
Informe de auditoría independiente de cuentas anuales abreviadas
a 31 de diciembre de 2014

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.

Opinión

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Asociación UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO, a 31 de diciembre de 2014, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

LKS AUDITORES, S.L.P.
Inscrita en el R.C.A.S.C. Nº 51024

Mª Mercedes Pascual Muiños
23 de mayo de 2015

Sarrera pribatuen eta publikoen jatorra

Sarrerak guztira 2014	699.664,85	
Ekarpn pribatuak	112.943,00	16,14%
Bazkideak	12.078,00	1,73%
Erakunde pribatuak	50.851,24	7,29%
Beste Batzuk (Norbanakoen dohaintzak, publizitate balioespena...)	50.013,76	7,16%
Ekarpn publikoak	586.721,85	83,86%
Eusko Jaurlaritz (*)	430.475,03	61,53%
Aldundiak (BFA - GFA - AFA)	89.734,85	12,83%
Udalak (Bilbao, Getxo, Basauri, Donostia)	23.417,68	3,35%
Atzerri eta Lankidetz Ministerioa	6.979,49	0,99%
UNESCO	514,80	0,07%
Beste batzuk (lokalen lagapenaren amortizazioa)	35.600,00	4,60%

(*) Eusko Jaurlaritzan:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia 35,20%; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila 7,15%; Uraren Euskal Agentzia 3,57%; Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza 3,76%; Hezkuntza Sailburuordetza 5,15%; Kultura Ondarearen Zuzendaritza 2,15%; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia 4,56%

Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2014	713.140,68
Orientazio-zentroa, komunikazioa eta bekak	81.787,97
UNESCO Bekak	133.180,30
EGKE Programa	27.118,78
Iraunkortasuna Programa	120.514,82
Garapenerako Kultura Programa	134.498,47
Bake Kulturaren eta Giza Eskubideen Programa	35.605,59
Nazioarteko harremanak	33.650,80
Kudeaketa orokorra, balioespenak, lokalen amortizazioa	146.783,96

Egoera-balantzea 2014

AKTIBOA	2014
Aktibo ez-zirkulatzailea	193.937,52
Aktibo zirkulatzailea	498.923,93
Aktiboa guztira	692.861,45

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2014
Ondare garbia	601.920,13
Fondo propioak	34.345,07
Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak	567.575,06
Pasibo zirkulatzailea	90.941,32
Ondare garbia eta pasiboa guztira	692.861,45

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2014an laguntza eman baitigute bake-kulturaren eta giza eskubideen alde lanean jarraitzeko.

Instituzioari diruz laguntzen diote:

- Laboral Kutxa.
- Obra social Fundación La Caixa.
- Irizar Koop. Elkarte.
- Ulma Taldea Koop. Elkarte
- Negobide Círculo Empresarial.
- San Nicolás Arraun Taldea. Portugaleta

UNESCO Etxearen egitasmoetan laguntzen dute:

- BBK Fundazioa.
- Electra Vitoria Koop. Elkarte.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Laenk Servicios Empresariales S.L.
- Go Basquing S.L.
- Kaiku Elikagai Korporazioa.

Iragarkiak txertatzeko doako lekuak uzten dituzte:

- Diario El Correo.
- Noticias de Gipuzkoa.
- Diario de Noticias de Álava.